

Asisko gutuna

2013ko Iraila. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

59. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hilabete honetan espiritualitatea gure senideengana begirada itzuliz lantzeko gonbitea egiten zaigu., errealitatea Jainkoaren begiradaz aztertzeko. Kontakizun bat sarrera gisa. Maisu batek galdetuz omen zion behin bere ikasle taldeari ea ba ote zekiten noiz hasten den eguna eta noiz amaitzen den gaua. Batek hari zuria beltzetik bereizteko adina argi dagoenean; besteak berriz urrunera begira behia ala astoa den bereizteko gai garenean; eta hirugarren batek...Ikusirik nondik zebiltzan esan zien: zuk pertsona bati begietara so egitean zure senidea ikusten baduzu orduan da eguna; bestela bada, oraindik gau ilunean zbiltza.

Gogoetarako gaia

Belaki begirada

Errealitateak halako zama eta trinkotasuna du berekin, eta horregatik gaintik pasatzen gaitu berehalaxe eta erraz. Halako informazio-piloa daukagu, eta horregatik ez gara gauza ezer asimilatzeke. Hainbeste dira artatu eta aztertu beharreko egoerak, gertaerak eta tokiak, eta horregatik gure biziraupen-senak guzti horri paso ematera garamatza, begiak ixtera sufrimendu orori eta edozein drama edo gertakariri, ez badugu, behintzat, ikusten berori geure aldetik inplikazio askorik gabe komentatzeko eta aztertzeke erraztasunik. Gertakari gehienak handiegia eta konplexuegia egiten zaizkigu beraiei ekiteko, eta geure burua geure txokotxoetan gordez bukatzen dugu pixkanaka.

Informazioa eta berriak halako abiadan eta hainbat ingurunetatik heltzen zaizkigu, eta horregatik ez dakigu nora begiratu, non kokatu, non geure burua inplikatu. Errekako harriaren antza izateko arriskua dugu: ura gaintik igaro-

tzen doakigu etengabe, baina hunkitu gabe beti lehor gelditzen zaigu barrua.

Ondo etorriko litzaiguke komunikabideek ematen digutenetik haratago jauzi egitea, eta jakitea ezin diogula kasu egin denari, mugatua dela gure begirada eta sentimena, baina ez geure zilborreraino soilik iristeko bezain mugatua.

Ondo letorkiguke ingurura begiratzea errealitate gutxi batzuk, edo bakarrak bederenik ere, gure begirada bil dezaten, horrela begirada hori pausatuta dadin eta arduratu, ikus dezan eta entzun ...

Ona genuke halako moduan begiratzea, ze normalean ikusten duguna baino, jendeak ikusten duena baino, gehiago ikus dezagun. Begirada maitetsuz eta arretatsuz begiratzea, porotsu bihur gaitezen eta errealitate horiek busti gaitzaten eta blai egin urak belakia bezala.

Ebanjelioko pasartea: Mk 12,41-44

Jesus tenpluko dirutegiaren aurrean eserita zegoen, jendeak kutxetara dirua nola botatzen zuen begira. Aberats askok ugari ematen zuen. Etorri zen emakume alargun behartsu bat, eta bi sos bota zituen, huskeria bat. Jesusek bere ikasleei dei egin eta esan zien: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan gutzia, bizitzeko behar zuena, eman du».

Frantziskotar espiritualtasuna

«Pobreen aitak, Frantzisko pobreak, gauza guztietan pobreen kideko eginak, ezin zuen jasan norbait bera baino pobreagoa ikustea. Jasanezina egiten zitzaion behartsuren bat iraintzen ikustea edo Jainkoaren sorkariren bat madarikatzen entzutea. Behin anaia batek limosna eskatzen ari zen behartsu bat samindu zuen. Frantzisko santuak, oso mindurik, gogor zentzatu zuen anaia hura. Honela esan ohi baitzuen: “Behartsuagatik gaizki esaka ari denak, Kristo iraintzen du, hura pobre egin baitzen gugatik mundu honetan”» (1 Zel 76).

Frantziskoren begiradak begirada garbi eta xumea dakargu gogora, besteak artegatua eta hunkitua izaten uzten den begirada, zentratua eta argiz beteriko begirada. Frantziskori, lehenik, Jesu Kristo-rengana doakio begirada, Haren begiradarekin aurkitu baitzen jada konbertitzen hasterakoan. Eta bere begirada modu oso berezian biltzen du gero behartsuak, zeinen aurrean hura beste aldera begiratu edo luzean igaro ezinik sentitzen delarik. Frantziskoren begirada Jesusen begiradan eta Jesusi begiratzean hezi zen; horrela ikasi zuen Jesusek erreparatzen zuen haietan erreparatzen, Hura hunkitzen zen haien aurrean hunkitzen, Hark ardura hartzen zuen haietaz arduratzen. Gaizki esaka jardun ordez, bedeinkaziozko begiradak ematen ikasi zuen.

Otoitza

Jesus Jauna, emazkiguzu errai errukitsuak
giza zorigaitz ororen aurrean,
argi gaitzazu, egoki joka eta hitz egin diezaiozun
bakarrik eta babesik gabe dagoen senideari.
Laguniezaguzu
beti prest eta bihotz zabal azaltzen
zapaldua eta etsita sentitzen denarekin.
Zure Eliza izan dadila, Jauna,
egia eta maitasunezko bizitoki,
askatasun, justizia eta bakezko bizitoki,
guztiek aurki dezaten berarengan

itxaropenez bizitzeko arrazoia.
Zure bila gabiltzanok jakin dezagula
aldien zantzuak bereizten,
eta hazi gaitezela
Ebanjelioarekiko leialtasunean;
maitasunez geure gain har ditzagula
gizon-emakumeen larrialdi eta atsekabeak,
poz eta itxaropenak,
eta horrela ager diezaiegula zure bidea
adiskidetzera, barkamenera eta bakera dar-
mana.

(Vb/Vc Eukaristia otoitzetatik hartua).

Gutuneko azken hitzak

“Soilik bihotzak daki ongi ikusten. Funtsezkoa begientzat ikusezina da”. (Printze txikia)

2013ko iraileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate iraileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 14, 1.7-14	7 Lk 6, 1-5	13 Lk 6, 39-42	19 Lk 7, 36-50	25 Lk 9,1-6
2 Lk 4, 16-30	8 Lk 14, 25-33	14 Jn 3, 13-17	20 Lk 8, 1-3	26 Lk 9, 7-9
3.Lk 4, 31-37	9 Lk 6, 6-11	15 Lk 15, 1-32	21 Mt 9, 9-13	27 Lk 9, 18-22
4 Lk 4, 38-44	10 Lk 6, 12-19	16 Lk 7, 1-10	22 Lk 16, 10-13	28 Lk 9, 43b-45
5 Lk 5, 1-11	11 Lk 6,20-26	17 Lk 7, 11-17	23 Lk 8, 16-18	29 Lk 16, 19-31
6 Lk 5, 23-39	12 Lk 6, 27-38	18 Lk 7, 31-35	24 Lk 8, 19-21	30 Lk 9, 46-50

Geure web gunea bisitatu



www.asissarea.org

Asis Sarea

646 21 48 96